



LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

GAUR EGUNGO ESKOLA-LIBURUTEGIAREN ERREALITATE EZBERDINAK

Egilea: Janire Uraga Pascual

Zuzendaria: Maite Serna Martinez

Data eta sinadura: Leioan, 2014ko ekainaren 13an

© 2014, **Janire Uraga**

AURKIBIDEA

ABSTRACT	2
SARRERA	3
1. JUSTIFIKAZIOA.....	3
2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	4
2.1. Helburu orokorra:.....	4
2.2. Helburu zehatzak:.....	4
3. MARKO TEORIKOA.....	5
3.1. Irakurketaren garrantzia umeen garapenerako.....	5
3.2. Eskola-liburutegia	9
3.3. Liburutegiko arduradunaren zeregina.....	11
3.4. Gaur egungo eskola-liburutegien egoera.....	11
4. METODOLOGIA.....	13
4.1. Lagina	14
4.1.1. Z1O.....	14
4.1.2. Z2A	15
4.2. Lan metodologia eta prozesua	16
5. EMAITZAK	17
7. ONDORIOAK.....	22
6. BIBLIOGRAFIA.....	24

ABSTRACT

Gaur egun eskola porrota hezkuntza arloko kezka nagusienetariko bat da, eta honen arrazoiatariko bat ikasleen irakurketa arazoak izan daitezke. Dakigunez, eskola-liburutegia irakurketa lantzeko eta sustatzeko gune ezinhobea da, eta hori dela eta, zentroaren ardatza izan beharko litzateke. Eskola-liburutegian, bestalde, irakaskuntzarako metodología berritzaileak praktikan jar daitezke, horretarako baliabideak dituelako, baina eskola askotan oraindik bazterturik agertzen da. Lan honek eskola-liburutegiaren errealitate ezberdinak eta honen funtzionamendu egokia lortzeko baldintzak erakustea helburu du.

Hezkuntza, irakurketa, eskola-liburutegia, berritzailea, errealitateak

Actualmente el fracaso escolar es uno de los mayores temores de la educación, y una de las principales razones de dicho fracaso puede ser las dificultades que presenta el alumnado con la lectura. Como sabemos, la biblioteca escolar es el lugar adecuado para trabajar y fomentar la lectura, por lo tanto, debería de ser la base de la escuela. En la biblioteca escolar, además, se pueden poner en práctica metodologías de enseñanza innovadoras, ya que posee recursos para ello, pero en muchos colegios esta todavía se encuentra en un segundo plano. Este trabajo pretende mostrar distintas realidades de la biblioteca escolar y los principales requisitos para conseguir su funcionamiento adecuado.

Educación, lectura, biblioteca, innovador, realidades

Nowadays the failure of schools is one of the biggest fears in education, and one of the main reasons could be students' difficulty in reading. As we know, the school library is the most suitable place to encourage and practice reading, so it should be the basis of the school. In addition, innovative educational methodologies could be put into practice in the school library, because it has the resources to do it, but in many schools this is still of secondary importance. This project tries to show different realities of the school library and the main requirements to make it work.

Education, reading, library, innovative, realities

SARRERA

Umeek irakurtzeko beharra daukate garapen intelektual, moral, emozional eta afektibo orekatu bat lortzeko. Bruno Bettelheim psikoanalistak bere *Psicoanálisis de los cuentos de hadas* obran dioen moduan: “umeak irakurketaren beharra dauka jaiotzen den momentutik bertatik”. Eta eskolaren funtzio nagusienetariko bat irakurzaletasuna bultzatzea denez gero, eskola-liburutegia helburu hau lortzeko errekurtsio giltzarria bihurtzen da.

Baina zein da bide egokiena eskola-liburutegiak funtziona dezan? Zeintzuk baldintza bete behar ditu hori gertatzeko? Zein da gaur egungo eskola-liburutegiaren errealitatea? Ikerketa lan honek galdera hauen erantzunak aurkitzea du helburu. Horretarako, bai behaketa eta bai elkarrizketaren bidez, bi hezkuntza zentroren liburutegiak aztertu dira, euren egoeraren zergatia ulertzera ailegatzeko.

Legeek, esaterako 2006. urteko LOEko 113. artikulua, eskola-liburutegiaren derrigortasuna adierazten duten arren, ikastegi bakoitzak eskubidea du hau aurrera eramateko ala ez, hortaz, eskola komunitateko kideen esku geratzen den gauza bat da, zentro bakoitzaren baldintzak erabakigarriak direlarik. Ikerturiko bi zentroak egoera honen isla dira.

1. JUSTIFIKAZIOA

Bi izan dira lan hau burutzeko arrazoi nagusiak:

Alde batetik, hezitzaile gisa irakasteko metodologia berriak bilatzea izan da asmoa. Unibertsitatean honako ideia hau bultzatu izan da hasieratik: bide egokiena errutinazko testu liburuetatik aldentzea dela estrategia berritzaileak eta praktikoak bilatuz, alegia. Teoriak hau esaten du, baina errealitatea nahiko ezberdina da, izan ere, eskoletan egindako praktika aldietan frogatu ahal izan da zentro askok metodo zaharrekin jarraitzen dutela, teknika berriek edo aldaketek erosotasunetik irtetea suposatzen duelako. Gauzak horrela, lan honekin metodo berri horiek bilatu nahi izan dira, jakinik eskola-liburutegiak ikasteko baliabide berritzaile ugari eskaini ditzakeela.

Bestetik, zentroetan izandako egonaldietan zehar, egiaztatu ahal izan da ezberdintasun nabariak daudela eskola-liburutegi batetik bestera. Bi zentro konkreturen liburutegien egoerak ondo ezagutu ostean eta hauek hain ezberdinak direla ikusi eta gero, ikertzeko jakin-mina piztu zen erabat. Zergatik dago hain alde handia eskola-liburutegien artean? Eragina al dauka zentroa publikoa ala pribatua izateak?

2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

GAL honek ondorengo helburuak lortu nahi ditu, hauekin loturik zenbait hipotesi aurkezten direlarik:

2.1. Helburu orokorra:

Gaur egungo eskola-liburutegien errealitate ezberdinak ezagutzea eta hauen zergatia ulertzea.

- LEHENENGO HIPOTESIA: Eskola pribatu edo kontzertatuek, euren aurrekontu handiagoa dela eta, liburutegi landuagoak dituzte publikoek baino.
- BIGARREN HIPOTESIA: Eskola-liburutegiari garrantzia ez ematearen arrazoi nagusia irakasleen motibazio falta izaten da, eskola-liburutegia funtzionaztearen erabakia eskolako kideen esku baitago.¹

2.2. Helburu zehatzak:

1. Eskola-liburutegiaren funtzioak zehaztea.
2. Eskola-liburutegi on baten espazioaren ezaugarriak ezagutzea.
3. Eskola-liburutegiaren arduradunaren papera aztertzea.
 - HIRUGARREN HIPOTESIA: Liburuzainik ez daukan liburutegiak ez du behar bezala funtzionatzen.
 - LAUGARREN HIPOTESIA: Familien parte-hartzea liburuzainaren dinamikotasunarekin lotuta dago.

¹ 2006. urteko LOEk hezkuntza zentro guztietan eskola-liburutegia egotea derrigortzen duen arren, ikastegi guztietan ez da hau betetzen.

4. Ikasleen irakurzaletasuna pizteko eskola-liburutegiak erabiltzen dituen estrategiak ikastea.
 - BOSGARREN HIPOTESIA: Zenbat eta jarduera gehiago proposatu liburutegiak orduan eta ikasle gehiago pasatuko dira bertatik.

3. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, lanaren gaian oinarri izango diren aspektu teoriko batzuk landuko dira, arloan jakitun direnen iritzietan oinarrituta. Hasteko, irakurketaren garrantziari erreparatuko zaio bereziki azpimarratuz haurren irakurzaletasunari buruzko gaian zeintzuk diren eragilerik garrantzitsuenak; jarraian, eskola-liburutegi batek zeintzuk ezaugarri izan behar dituen azalduko da; ondoren, bertako liburuzainaren zeregina zein den zehaztuko da eta, azkenik, gaur egungo eskola-liburutegiaren egoera aztertuko da.

3.1. Irakurketaren garrantzia umeen garapenerako

Irakurketa ongi garatzea ezinbestekoa da ume baten garapen egokia lortzeko, izan ere, ezagutzak eskuratzeko bide nagusia da, eta horregatik da eskolako lehentasunezko lan esparrua. Jorge Luis Borges idazle argentinarren esan zuen moduan, “Ni ez naiz naizena idazten dudanagatik, irakurri dudanagatik baino”, edo Oliver Sax neurologoaren arabera “Literaturak hitzak ematen dizkigu eta hitzek bizitza ematen digute. Hitzak behar ditugu bizi ahal izateko”.²


Victor Morenok (2004: 58) honela definitzen du irakurtzeko gaitasuna: “Leer es una decisión voluntaria y consciente. La lectura siempre está ahí. Su chispa puede saltar en cualquier momento. Es cuestión de decidirse, de voluntad, de ganas.”

PISA 2009 Irakurketa Markoak, aldiz, honako hau defendatzen du irakurketaren garrantziari buruz: “(...) helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko

² Jorge Luis Borges eta Oliver Sax-en aipamen hauek Berritzegune Nagusiak argitaraturiko Irakurketa Lantzeko Orientabideak lanetik atera dira.

xedeekin, irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko, haietaz gogoeta egiteko eta haiekin konprometitzeko duen gaitasuna da". Irakurtzeko gaitasunaren definizio horren arabera, beraz, ikasleek, irakurle konpetenteak izateko, prozesu hauek egiteko gai izan behar dira: informazioa eskuratu, testua bere osotasunean ulertu, testua interpretatu eta testuaren forma eta edukiari buruzko gogoeta egin.

Espanian, orokorrean, ulermen maila eskasa dago, izan ere, PISA 2009 informean islatzen den bezala, Espainiako estatuak 481 puntuko media lortu zuen, OCDE³ herrialdeen artean hogeita bosgarren postua izanik hogeita hamahirutik, hau da, zerrendaren atzealdean egonik.



1. irudia. PISA 2009ko irakurketaren emaitzak

Momentu honetan, eskola instituzioaren helburu nagusienetariko bat irakurketari dagokionez ondoko hau da: testu mota ezberdinak erabiltzeko gai diren irakurle konpetenteak heztea, informazio ezberdinaren aurrean kritikoak direnak eta irakurketa ondo pasatzeko tresna gisa ikusten dutenak, alegia. Gobernuak legeek (bai 2006ko LOE⁴ eta baita 2007ko Irakurketa, Liburua eta

³ Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico 1961ean sorturiko erakundea da. 34 herrialdek osotzen dute eta bere xedea munduko pertsonen ongizate ekonomiko eta soziala hobetzen duten politikak bultzatzea da.

⁴ Hezkuntza Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa. http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2006/07899

Liburutegiaren Legea⁵) eta autonomia erkidegoenak ere ideia hau azpimarratzen dute.

Eskolarekin lotutako edozein alderditako hobekuntzan lau taldek dute ardura: irakasleria, ikasleria, familiak eta ikas-komunitatea. Irakurketan eta irakurzaletasunaren garapenean, hala ere, eskola-liburutegiaren protagonismoa azpimarratzen dute adituek, adibidez Lockwood (2011: 64), hurrengo hitzetan irakurri ahal diogunez: “La biblioteca tiene que ser el centro de cualquier escuela que dé importancia a la lectura, el centro al que conduzcan todas las actividades de lectura”. Honen zergatia García Gerrerok (2012: 13) aipatzen digu: “...para mejorar la comprensión y la afición lectora han puesto de manifiesto la necesidad de convergencia e integración de múltiples acciones aisladas y sin conexión...”.

Familien papera giltzarria da umeen irakurzaletasuna benetan finkatzeko. Hasteko, etxean ezinbestekoa da adibide egokia ematea (egunkaria, aldizkari bat edo liburu bat irakurriz, esaterako), umeek ikusten dutena imitatzeo tendentzia baitute. Bestetik, oso inportantea da gurasoek egunero seme-alabekin irakurtzeko leku eta momentu bat bilatzea, beti ere aisialdiko irakurketa dibertigarria izanik, eskolako zereginetatik at dagoena. Batez ere, umeen hasierako etapetan komeni da elkarrekin irakurtzea, “altzo irakurketa” deritzoguna, oraindik ez baitira autonomoak haiek bakarrik egiteko eta txikitatik egiten badute hobeto barneratuko dutelako. Gustavo M. Garzok (2003) hurrengo defendatzen du: “Conviene empezar cuanto antes a ser posible en la habitación misma de la clínica de maternidad, ya que es aconsejable que el futuro lector esté desde que nace rodeado de palabras”. Hala ere, nagusiagoak direnean jarraitu behar da ohitura honekin, hauek ere familiaren kemena beharko baitute.

Irakurketa eta irakurzaletasunaren gaian presentzia handia duen Germán Sánchez Ruipérez Fundaziotik⁶ ideia hau nabarmentzen da: “Familiak, bere aldetik, paper eta erantzukizun izugarria du umearen irakurzaletasunaren

⁵ Lege honen bidez, Espainiako Konstituzioak irakurketa eta liburuari definizio eta ikusmolde berri bat eman zien 2007an.

⁶ Germán Sánchez Ruipérez editore espainiarrak 1981ean sorturiko fundazioa da. Hezkuntza eta kultura ekintzetan zentratzen da, bere helburu nagusia liburu eta irakurketa sustatzea izanik <http://www.fundaciongsr.com/>

garapenean. Horretarako, irakurketa onak eta denetarikoak eskainiko dizkio, bere mundu afektibotik eta interesetatik gertu daudenak; bere kezkei erantzuten dietenak, pentsarazten dietenak, bere gustu pertsonalekoak direnak eta bere irakurketaren bidea gidatzen laguntzen dietenak.”

Askotan, aldiz, familia bera izaten da umeei irakurketari gorrotoa izaten eragiten diena. Inkontzienteki irteten diren esaldi negatiboak esaten ohi dira, “ezkutuzko curriculuma” nolabait, eta umeei txikitatik ikasitako informazio hori bereganatzen dute irakurketa arbuiauz.

Se trata de analizar algunos “errores de bulto” – como el oponer frontalmente el libro a la televisión o a los cómics, recordar machaconamente que en nuestra infancia leíamos más, transformar el libro en un verdadero instrumento de tortura, etc.- errores que, muy a nuestro pesar pero de manera indefectible, acaban por convertirse en nuevas maneras de enseñar a los niños a odiar la literatura.

(Osoro, 2010. *Como enseñar a los niños a odiar la lectura*)

Beste alde batetik, IKTen erabilpena ere oso komenigarria da irakurketa lantzerako orduan. Gerta daiteke jendeak pentsatzea gaur egun hain presente dauden teknologia berriak irakurketaren etsai nagusia izatea, IKT hitza entzuterakoan berehala telebista eta bideojokoak baitatorkie burura. Baina hainbat esperientzia berritzailek erakusten digute gaur egun teknologia berrietatik etekin izugarria ateratzen dela eskoletan irakurzaletasuna bultzatzeko, eta oso tresna polita eta erabilgarria bilakatu da. Umeak ohiturik daude teknologiaren munduko terminologia entzutera, heldu askok ezinezkotzat jotzen dutena; gainera, jaiotzen direnetik kuriositate handia sentitzen dute irudi, kolore eta mugimenduengan (FGSR, 2007:30).

Ferreirok (2004) ondoko ideia hau adierazten du: “Las tecnologías resultan muy atractivas para las generaciones de “niños informatizados”. Horrez gain, Miren Lizarralde eta Magda Lorenteren (2003) ideia azpimarratu daiteke, hauek Bartzelonako *Diputazioko Servei de Biblioteques Públiquesek* 1996. urtetik bultzatu zuen nazioarteko proiektu kooperatibotik, CHILIAS⁷-etik

⁷ Children's Library Information Animation Skills, 1996. urtean sortua, Europako Batzordeko proiektu bat da Interneten umeentzako liburutegi birtual bat eratu duena.

hain zuzen ere, hurrengo adierazi zutelarik: “que tuvo como objeto desarrollar desde la biblioteca tanto el placer por la lectura y la creatividad entre los escolares de 9 a 12 años, como el uso de las tecnologías y la búsqueda de la información”

3.2. Eskola-liburutegia

Orain arte, eskola-liburutegia aukerako zerbitzu gisa ikusi da, irakaskuntza zereginen osagarria izanik besterik ez. Ostera, 90 hamarkadaren hasierako erreformatik aurrera, hezkuntza sistema berriek era oso ezberdin batean nabarmentzen dute: ikasleen ikaskuntzan, irakaskuntza zereginetan eta zentroaren inguru sozial eta kulturalean paper giltzarria daukan errekurtsoen gune dinamikoa eta informazioaren zerbitzu aktibo eran. Modu honetan, eskola-liburutegia zentro baten oinarritzko elementutzat baloratzen da, bertan benetako komunikaziozko kultura eta etengabeko ikaskuntza ezartzeko gune aproposa delakoan. Bizitasunez beteriko guztiontzako liburutegia sortu behar da, erregulartasunez erabiltzen den gune atsegina eta epela.

La biblioteca escolar se define como el conjunto ordenado de todos aquellos materiales que la escuela necesita para llevar a cabo su labor docente y que pueden ser utilizados por todos los individuos que componen la comunidad escolar. La biblioteca debe considerarse un elemento básico e indispensable para la función educativa: todos, en la escuela, necesitan la información para su formación.

(Baró eta Mañà, 1996. *Formarse para informarse*)

Gómez Hernández (2002) proposatutakoari jarraituz, eskola-liburutegiaren kontzeptu berri honek hurrengo ezaugarriak dakartza:

- **Ikasteko leku berria:** eskola-curriculumarekin guztiz loturik egon behar da, hau da, gelan lantzen diren materialak eta liburutegia elkarren osagarri izan behar dira.
- **Material eta iturri ugari:** mota eta euskarri guztietako materiala eskaini behar du.

- **Gestio zentralizatua:** eskolako material informatibo guztiak bildu behar ditu, hauen kudeaketa liburutegian zentralizaturik egonik.
- **Irekia:** bai eskola liburutegia eta baita ikastetxea ere ezin dira bere ingurunearengandik isolaturik mantendu.

Eskola-liburutegi “berri” honek funtzio zehatzak ere baditu, hurrengoak IFLA UNESCO⁸ren aburuz: zentroan existitzen den dokumentazio guztia biltzea, eskola osotzen duten kide guztiei informazioa eskaintzea, giro egokia sortzea ikasleek informazio iturri ezberdinak erabiltzeko gaitasuna lor dezaten, irakurketa informazio zein entretenimendu tresna gisa sustatzen duten jarduerak proposatzea eta kanpoko informazio iturri eta zerbitzuekin lotura ezartzea.

Instalazioei eta kokapenari dagokienez, garrantzitsua da liburutegia zentroaren toki guztietatik hurbil dagoen gunean egotea, bere erabilgarritasuna errazteko helburuarekin. Horrez gain, leku atsegina eta erakargarria izan behar da, ikasleek elkarrekin egoten eta lankidetzan aritzen ikas dezaten. Altzariak, hormen koloreak, argitasunak, seinaleak, apaingarriak etab eragin handia izango dute, hauek guztiak egokiak badira erabiltzaileak erakarriko ditu. Bestalde, eremuka antolatuta egon behar da, gunean proposak edukiz isilik irakurtzeko, taldeka aritzeko, informazio inprimatua nahiz digitala bilatzeko e.a.

Azkenik, ordutegia dela eta, guztiz malgua izan behar da. Honek bide eman behar du ordutegi ezberdinak duten maila guztietako ikasleek erabili ahal izatea eta baita irakasleriak eta eskola komunitateko beste kideek sarrera libre izateko ere.

⁸ *International Federation of Library Associations and Institutions* liburutegiarekin loturiko alorrak ikertzen eta garatzen dituen munduko bibliotekariei eskeinitako elkarte internazionala da http://www.unesco.org/webworld/libraries/manifestos/school_manifesto_es.html

3.3. Liburutegiko arduradunaren zeregina

Aipatutako eskola-liburutegiaren ikusmolde berri honek behartzen du liburuzainaren erantzukizuna handiago izatera eta baita funtzio gehiago bete behar izatera ere.

IFLA-UNESCOk 2000. urtean argitaraturiko *Eskola-liburutegirako Arauetatik* hurrengo definizioa aurki daiteke eskola-liburutegiko ardura dutenei buruz: eskolako liburuzaina eskola-liburutegia planifikatzeko eta antolatzeko erantzukizuna duen langile tituluduna da. Gainontzeko langile gaituen laguntza jasotzen du, eskola-komunitateko kide guztiekin kolaboratzen du eta kanpoko beste liburutegiekin harremanak ezartzen ditu.

Eskolako liburuzainaren funtzio nagusia eskolaren helburuak lortzeko laguntza ematea eta bertako kide guztiei liburutegiak eskaintzen duen zerbitzuaren politikaz kontzientziatzea da. Zuzendaritza, administrazioa eta irakasleriarekin batera, curriculumaren plangintza eta inplementazioa egin behar du. Gainera, informazioa eskaini behar du eta mota guztietako iturrien erabilpenean aditua izango da. Bere ezagutzek eta trebetasunek eskola komunitate konkretu bati erantzun behar diete.

Horrez gain, irakurketaren inguruko kanpainak proposatu beharko ditu eta literatura bultzatu beharko du. Azken finean, aisia eta ikaskuntzarako gune erakargarri, eroso eta hurbil bat sortu beharko du.

3.4. Gaur egungo eskola-liburutegiaren egoera

Espanian zenbait saiakera egon dira eskola-liburutegien erabilpena bultzatzeko, baina legeak, programaketak, praktika errealak eta hauen garapena ez dira benetan irakaskuntzarako errekurtsu giltzarri bihurtu, liburutegi hauek, Miretek (2008: 96) azpimarratzen duen moduan, ia aspektu guztietan arau internazionaletatik nahiko urrun kokaturik. Orain arte ibili den bidea sentsibilizaziozkoa besterik ez da izan, oraindik garrantzitsuena egitea falta da: eskola-liburutegiak irakaskuntza eta ikaskuntzarako errekurtsoen erdigunea bilakatzea, hauei oreka eta estaldura legal bat emanez (Gómez Hernández, 2002).

Irakurketa gaitasuna eta ezagutzak eskuratzeko sistema den eskola-liburutegia guztiz marjinaturik dago espainiar hezkuntzan. Horregatik, aditu askoren arabera, Castán eta Osoro beste batzuen artean, irakurketa panorama eskasa eta eskola porrota elkar loturik agertzen dira. Espainiako Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioaren (2012) *Eskola-liburutegien Lehenengo Estatistika* argitalpenean agertzen den moduan, estatuan dauden 30.000 hezkuntza zentroetatik, soilik %5ak dauka eskola-liburutegia.

Los planes de fomento de las bibliotecas escolares ignoran los elementos estructurales básicos y definitorios (...) y se centran en cuestiones periféricas, por lo que los esfuerzos se pierden o prácticamente no se rentabilizan. Y es que no se puede pretender crear este esencial servicio sin ideas claras plasmadas en una normativa y sin inversiones importantes.

(Castán Lanaspá G., 2004. *Diez tesis para el debate sobre las bibliotecas escolares*)

Castánen (2004) ideiarekin jarraituz, aipatu behar da momentu honetan ez daudela baldintza sozial, politiko ezta profesional egokirik eskola-liburutegiak hezkuntza zentro guztietan egoteko. Zentro askotan, erreformek espazio eta denboran aldaketak suposatzen dituztenean eta metodo eta errutina profesionalak zalantzan jartzen dituztenean, langileei traba asko sortzen zaizkie. Aldaketa horiek aurrera eraman ahal izateko zuzendaritza taldearen konpromisoa eta lantalde gaitu eta konstantea behar izango da.

Azken urte hauetan, egoera hau hobetzeko konponbideak agertu dira, esate baterako, errekurso ekonomikoak bildu dira, lege batzuk aldatu dira eta hezkuntza administrazio ezberdinek eskola-liburutegi programak sustatu dituzte. Baina hauen benetako hobekuntza lortzeko, konpromiso hirukoitza (estandar internazionalak, ebaluazioa eta pertsonak) beteko duen politika egonkor bat beharko da (Miret I., 2008).

Hona hemen FGSR eta Idea Institutuak (2005) arazo honi buruz egindako ikerlanetik ateratako gomendio edo konponbide batzuk: derrigorrezko hezkuntzako irakasgai guztietan irakurketa denbora bat sartu, eskola-liburutegiak arratsaldetan eta asteburuetan irekita egon daitezzen baliabideak bermatu, liburuzainak gutxienez astero 15 orduko ardura egonkorra daukala

ziurtatu, giza-errekurtsoak zabaldu eskola-liburutegia indartzeko, eskola-liburutegientzat zuzenduta dauden zentro koordinatzaileak edo laguntzazko zerbitzu tekniko zein teknologikoak sortu, eskola bakoitzean irakurle komunitateen sorkuntza finkatu e.a.

Gainera, Lockwood-ek (2011: 64) ere eskola zuzendariaren konpromisoa eta laguntza izatea, liburuzain espezialistak izendatzea, gainbegiratze eta ebaluazio eraginkorrak egitea eta ikasleen gaitasun bibliografikoak garatzeko programa koherenteak sortzea proposatzen du eskola-liburutegi egokiak sortzeko eta iraunarazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Kultura eta Hezkuntza Departamentuak 2002an sorturiko EAEko eskola-liburutegien egoerari buruzko txostenean adierazten da 873 hezkuntza zentroetatik 612k eskaintzen dutela eskola-liburutegiaren zerbitzua. 1995. urtean ACEX⁹ programa sortzen da, bere baitan hiru lurraldeetako 176 irakasle-liburuzain izanik. Programa honi esker aurrerakuntza asko egin ahal izan dira, baina oraindik bide luzea geratzen da (Santamaría A., 2010).

4. METODOLOGIA

Ikerketa lan honen lehenengo pausua alderdi teorikoaren oinarria hartzea izan da. Horretarako, hainbat erreferentzia bibliografiko hartu dira iturri gisa, hala nola, liburutegi publiko batean eskaturiko liburu batzuk, Berritzeguneko aholkulariak eta eskola publiko baten zuzendariak emandako zenbait informazio, eskola-liburutegi baten arduradunak emandako ideiak, Google Scholar-etik irakurritako artikulak etab. Ondoren, informazio hau guztia ongi kudeatu ahal izateko, laburpenak eta eskemak egin dira, datu garrantzitsuenak eta egokienak hautatuz.

⁹ Euskadiko Eskolaz Kanpoko Ekintzen Programa MECek 1995ean sorturiko programa da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero egiten die deia parte hartu nahi duten Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentro publikoei. <http://www.acex.hezkuntza.net/web/guest>

4.1. Lagina

Aurretiaz ikusi den bezala, gaur egun errealitate oso ezberdinak aurki daitezke eskola-liburutegiari dagokionez, hau da, zentro batzuetan oso barneratuta daukate bere presentzia eta beste batzuetan, ordea, ez zaio inolako garrantzirik ematen. Beraz, muturreko egoera horiek era hurbilago batean ezagutu ahal izateko, bi hezkuntza zentro ezberdinen liburutegiak aztertu dira, batean hau gune oso inportantea delarik, eta bestean, aldiz, inolako presentziarik ez duela jakinik.

Lehenengo zentroari Z1O¹⁰ deituko diogu eta bigarrenari Z2A¹¹, modu honetan ikastegi hauen izen errealak aipatzea ekidingo da euren anonimotasuna errespetatuz. Hala eta guztiz ere, ikerketa hau egin ahal izateko eta irakurlearen burua testuinguru horietan kokatzeko, zentro bakoitzaren ezaugarri nagusiak aipatuko dira.

Bi zentroekin kontaktuan jarri ahal izateko, korreo elektronikoa bana bidali zitzaizen bertako zuzendariei, haien eskola-liburutegiaren inguruan ikerkuntza bat egiteko baimena eskatuz. Behin erantzun positiboa jaso, zentroetara informazio bila joatea egokitu da.

4.1.1. Z1O

Z1O Meatzaldean kokatuta dago, hau da, Bizkaiko meatzari gunean. Tamaina erdiko udalerrria da (7,65 km²), gaur egun 8.400 biztanle inguru dituelarik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dagoen ikastetxe publikoa da. Bertan 2-12 urtera arteko aniztasun handiko 300 ikasle daude, 500m-ko distantzian banaturik dauden bi eraikuntzatan. D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako tarteak ematen dira. Horrez gain, aipatu behar da ikastetxea ikas-komunitate bat dela, herriari zabaldua, herritar eta kultur erakundeekin jarrera parte-hartzailea mantenduz. Era berean, udalak edota beste erakundeek antolatutako ekintzetan parte hartzen du, batez ere

¹⁰ “Z” letrak Zentroa adierazi nahi du, “1” zenbakiak gure lehenengo zentroa delako eta “O” letrak bere izena letra honetatik hasten delako.

¹¹ “Z” letrak Zentroa adierazi nahi du, “2” zenbakiak gure bigarren zentroa delako eta “A” letrak bere izena letra honetatik hasten delako.

komunitatearen errealitate sozio-kulturaletan oinarritutako ekintzei garrantzi handia emanez.

ISEC¹² maila baxua du, izan ere, familiek egoera sozio-ekonomiko eskasa daukate, ikasleriaren %78-ak Hezkuntza Saila eta Ongizate Departamentuko bekak jasotzen dituelarik. Familia gehienek oinarrizko ikasketak besterik ez dituzte.

4.1.2. Z2A

Z2A Bizkaiko Ezkerraldean kokaturik dago. Udalerri honek 47.200 biztanle inguru ditu baina bere azalera 3,2 km-koa besterik ez da, bere dentsitatea Euskal Herriko handienetakoa izanik.

Zentro hau Ikastolen Elkartearen barnean sartuta dagoen ikastola kooperatiba bat da, kontzertatua, eta familia kideen laguntzaz gain, Eusko Jaurlaritzatik ere diru laguntzak jasotzen ditu. Tamainaren aldetik oso handia da, Haur Hezkuntzatik Batxilergora lau lerrotako hezkuntza eskaintza du, D eredukoa ere, guztira 1625 ikasle egonik.

Honek, ordea, ISEC maila ertain-altua dauka. Ikastolara joateak hilero diru kantitate garrantzitsu bat ordaintzea suposatzen du, beraz, orokorrean bertako ikasleak eta haien familiak maila ekonomiko eroso batean bizi dira, salbuespenak egon arren. Gainera, bertako familia gehienek erdi edo goi-mailako ikasketak dituzte eta maila kultural on batean bizi dira.

Ikastegi hauen arteko ezberdintasunik nabarietak, hortaz, hurrengo hauek dira:

- **Ikastetxe erdua:** Z1O publikoa da eta Z2A kontzertatua.
- **ISEC maila:** Z1O-k maila sozioekonomiko baxua du eta Z2A-k ertain-altua.
- **Tamaina:** Z1O txikia da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako bi lerrotakoa soilik (2-12 urte artekoa) eta Z2A oso handia, Haur Hezkuntzatik Batxilergorakoa eta lau lerrotakoa (2-18 urte artekoa).

¹² Índice Socioeconómico y Cultural: hezkuntza zentroak euren maila sozioekonomikoaren arabera sailkatzen dituen indizea.

Beraz, euren arteko ezberdintasun garrantzitsu hauek guztiak izan dira, hain zuzen ere, hezkuntza zentro hauek aukeratzearen arrazoi nagusia. Bi herri hauen artean bi kilometro eskas besterik ez dauden arren, baldintza oso ezberdinetan daude eta diferentzia hauekin interesgarria izan da bakoitzak eskola-liburutegiari zer nolako garrantzia ematen dion jakitea, gaur egungo errealitate ezberdin bi ezagutzeko bide emanez.

4.2. Lan metodologia eta prozesua

Bi zentro ezberdin hauetako eskola-liburutegiaren funtzionamendua ezagutzeko, behaketa izan da erabilitako funtsezko teknika. Hala ere, horrez gain, izaera kualitatiboko beste metodo bat erabili da zeinetan zentro bakoitzeko liburutegien berri duten bi pertsonen elkarrizketa bana egin zaien.

Mesonero de Miguelek (2005) bere *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak* lanean adierazten duen moduan, “behaketa gizabanakoen edo elementu-talde baten jarrera eta ezaugarriei buruzko informazioa jasotzea ahalbidetzen duen teknika bat da”. Kasu honetan, behaketa gela fisiko bati egin zaio eta, horrekin batera, bertan egunerokotasunean gertatzen dena aztertu da, eskola-liburutegia, alegia.

Elkarrizketak, ordea, informazio pertsonalago bat lortzeko eta behaketa osatzeko gauzatu dira, izan ere, behatuz bakarrik zaila da interesatutako informazio guztia biltzea. Modu honetan, informazio guztia era sakonago batean ikertu da.

Hasteko, Z1Oko liburutegiaren arduradunari egin zaio elkarrizketa¹³, bertako liburutegiak daukan papera zehazteko eta, horrez gain, liburuzain gisa bere esperientzia pertsonala ezagutzeko. Aldiz, Z2An liburuzainik ez dagoela jakinik, jarraibide ezberdin bat erabili behar izan da. Behaketarekin argi ikusi da zentro honek ez diola liburutegiari ezta irakurketari ere hainbeste garrantzirik ematen, hortaz, horren zergatia jakiteko bertako kide bati elkarrizketa¹⁴ egitea erabaki da. Pertsona hau irakurketarekin nahiko sentsibilizatuta dagoen irakasle

¹³ Ikus 1. eranskinean.

¹⁴ Ikus 2. eranskinean.

bat da, egoera aldatu nahiko lukeena, beraz, honekin beste motatako mintzaldia garatu da, galderak nagusiki arazo edo egoera horretara bideratuz.

Behaketa eta elkarrizketen bidez, honako aspektu hauek ikertu dira:

- Liburutegiko itxura fisikoa: altzairuak, tamaina, bilduma, txoko ezberdinak, argitasuna, apaingarriak, hormen kolorea, seinaleak, IKTen presentzia e.a.
- Liburutegiaren ordutegia, kokapena eta erabilpena.
- Liburuzainaren lana: bere eginkizuna, ordutegia, inplikazioa, izaera e.a.
- Liburutegia eta curriculumaren arteko lotura.
- Liburutegian irakurzaletasuna bultzatzeko antolatzen diren ekintzak (bai Haur Hezkuntzako ikasleentzat eta bai Lehen Hezkuntzakoentzat).
- Eskola-komunitatean dauden gainontzeko kideen inplikazioa: irakasleak, familiak, zuzendaritza, gainontzeko instituzioekin harremana e.a.

5. EMAITZAK

Atal honetan, ikerketa lanean zehar eskuratu diren emaitzak aurkeztuko dira hasieran definituriko helburuekin lotura ezarriz. Lanak xede konkretu batzuk izan ditu eta, orain, xede horiei erantzun bat eman ahal izango zaie. Horrez gain, bildutako datuen arabera, helburu bakoitzeko formulatu diren hipotesiak onartu ala baztertu ahal izango dira.

Lanaren jomuga nagusia gaur egungo errealitate ezberdinak islatzea denez, jasotako datuekin gure bi zentroetako liburutegien konparaketa egingo da aspektu garrantzitsuenei erreparatuz.

Gaur egungo eskola-liburutegien bi errealitate ezberdin

- ❖ Datuek adierazten diguten bezala, alde batetik, Z1Ok eskola liburutegia ikastetxeko oinarri gisa dauka, aktibitate handia dago bertan eta ikasleen ikaskuntzan paper garrantzitsu bat jokatzen du. Egoera hau arrazoi ezberdinengatik gertatzen da:

- Motibaturik dagoen eta liburutegirako dedikazio osoa duen Hezkuntza Departamentuak jarritako liburuzain bat daukatelako. Pertsona hau ACEX programan sartuta dago eta, honen bidez, formazioa, errekurtsoak eta ideia berriak jasotzen ditu eta, horrez gain, beste eskola-liburutegietako arduradunekin harreman zuzena du, eskola-liburutegiarentzat guztiz aberasgarria izanik.
 - Eskolako zuzendaritza taldeak garrantzi handia ematen diolako eskola-liburutegiari eta aurrekontuetako diru kopuru bat liburutegia hornitzeko erabiltzen duelako.
 - Eskola txikia denez gero, konfiantzazko giroa dagoelako eta gurasoen parte hartzea handia delako.
- ❖ Z2Ak, ordea, ez dio liburutegiari garrantzirik ematen. Bertan ez dago inolako aktibitaterik, espazioa nahiko desprobetxaturik dago eta inork ez du toki horretan irakurtzen. Kontrako egoera hau ere zenbait arrazoik bultzatzen dute:
- Liburuzainik ez dagoelako, hortaz, nahiko zaila suertatzen da liburutegia aurrera eramatea pertsona bat honetaz arduratzen ez bada.
 - Ikastola hain handia izanez eta hainbeste langile egonez, zailagoa delako urtetatik finkatuta dauden errutinak aldatzea, honek motibazio eta esfortzu handia eskatzen baitu.
 - Finantziazio aldetik, baliabide materialak ordaintzeaz gain, liburutegiaren arduradunaren soldata ere ordaindu beharko litzatekeelako. Kasu honetan, ikastola kontzertatua denez, Hezkuntza Departamentuak ez du inolako arduradunik jarri.

Hemen jasotako informazioak helburu orokorrari erantzuten dio, gaur egungo eskola-liburutegien errealitate ezberdinak ezagutzea eta hauen zergatia ulertzea, alegia. Kasu honetan, aukeratutako zentroak elkarren ondoan egon

arren, ikusi ahal izan da muturreko egoerak bizi izaten ari direla eskola-liburutegiari dagokionez. Beraz, azterketa honek gure lehenengo hipotesia baztertzera eramaten gaitu, hau da, eskola pribatu edo kontzertatuak, euren aurrekontu handiagoa dela eta, liburutegi landuagoak dituztela publikoek baino. Adibide honetan ikusi ahal izan da eskola publikoak liburutegi landuagoa duela eskola kontzertatuak baino. Eskola kontzertatuak, segur aski, aurrekontu handiagoa izango du baina, kasu honetan, ez du liburutegian inbertitzen.

Aldiz, gure bigarren hipotesia egiaztatuta geratzen da, “eskola-liburutegiari garrantzia ez ematearen arrazoi nagusia irakasleen motibazio falta izaten da, eskola-liburutegia funtzionaraztearen erabakia eskolako kideen esku baitago”, hain zuzen ere. Zentro askok ez dute eskola-liburutegirik antolatzen. 2006. urtean argitaraturiko LOEn hala esaten den arren: “...las bibliotecas escolares contribuirán a fomentar la lectura y a que el alumno acceda a la información y otros recursos para el aprendizaje de las demás áreas y materias y pueda formarse en el uso crítico de los mismos...”, ikastegi bakoitzaren esku geratzen da hau betetzea ala ez, eta bertako kideen motibazioa funtsezkoa da hau lortu ahal izateko.

- **Eskola-liburutegiaren espazioaren ezaugarriak¹⁵**

	Z1O	Z2A
Sartzerakoan emandako inpresioa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Argitasuna ▪ Alaitasuna ▪ Bizitasuna 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iluntasuna ▪ Seriotasuna ▪ Bizitasun eza
Txokoak	Bai	Ez
Altzariak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Umeentzat egokituak ▪ Koloretsuak ▪ Anitzak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Umeentzat ez egokituak ▪ Serioak ▪ Monotonoak
Hormak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Koloretsuak ▪ Apaingarriez beteak ▪ Leiho handiak eta irekita 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zuriak ▪ Apaingarririk gabe ▪ Leiho handiak baina itxita
Liburu-bildumak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ugariak ▪ Umeentzat zuzenduta ▪ Gaurkotuak ▪ Ondo sailkatuak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urriak ▪ Helduentzat zuzenduta ▪ Zaharkituak ▪ Sailkatu gabe
IKTak	Bai	Ez

Taula 1. Eskola-liburutegiaren espazioaren ezaugarriak.

¹⁵ Ikus bi liburutegien argazkiak 3. eranskinean.

Informazio honek gure bigarren helburuari erantzuten dio, eskola-liburutegi on baten espazioaren ezaugarriak ezagutzeko aukera emanez.

Datuetan ikus daitekeen moduan, eskola-liburutegi bat egokia izango da erabiltzailea bertan sartzera erakarria sentitzen bada eta bizitasunezko eta argitasunezko klima bat nabaritzen bada. Espazioa erabiltzailearen beharrezko araberako txoko ezberdinetan antolatuta egotea komeni da eta gela zenbait teknologia berriez hornituta egotea (ordenagailuak, arbel digitala e.a.). Horrez gain, altzariak umeentzako egokiak izan beharko dira, euren tamainara egokituak eta koloretsuak, monotonia ekidinez. Hormak ere koloretsuak izatea komeni da, bertan umeentzako mezuak dituzten horma-irudi politak eta apaingarriak egonik. Azkenik, liburuen bildumei dagokienez, umeentzako aproposak izan behar dira, gaurkotuak eta gaien arabera ondo sailkatuak.

- **Eskola-liburutegiaren ordutegia, kokapena eta erabilpena**

	Z1O	Z2A
Ordutegia	9:45etatik 18:00etara	8:30etatik 18:00etara
Kokapena	Geletatik eta sarreratik hurbil	Sarreratik hurbil baina geletatik urrun
Erabilpena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakurketa librea egiteko ▪ Liburuzainarekin ekintzak egiteko ▪ Eskola orduan irakaslearekin joateko ▪ Etxerako lanak egiteko 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleen jantoki gisa ▪ Etxerako lanak egiteko

Taula 2. Eskola-liburutegiaren ordutegia, kokapena eta erabilpena.

- **Eskola-liburutegiaren arduradunaren lana**

	Z1O	Z2A
Izaera	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Oso lasaia ▪ Pazientzia handikoa ▪ Txukuna ▪ Ordena gustatzen zaio ▪ Bere lanarekin disfrutatzen du 	Ez dago arduradunik
Zer egiten duen	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Liburutegia antolatu eta gaien arabera atondu ▪ Liburuak sailkatu ▪ Ekintzak asmatu eta kudeatu ▪ Umeei etxerako lanekin 	Ez dago arduradunik

	lagundu <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakusketak antolatu ▪ Eskola-komunitateko kideekin elkarrekintzan aritu 	
--	---	--

Taula 3. Eskola-liburutegiaren arduradunaren lana.

Aurkeztutako informazio hau gure hirugarren helburuarekin lotuta dago, hala nola, eskola-liburutegiaren arduradunaren papera aztertzearekin. Oso inportantea da liburuzaina bere lanarekin disfrutatzen duen pertsona bat izatea. Kasu honetan, eta aurretiaz aipatu den moduan, arduradun hau ACEX programan sartuta dago eta liburutegiaren inguruan formazio espezifikoak jasotzen ditu. Bere lana eskola-liburutegiari bizitza ematea da, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta euren familientzat irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak antolatuz.

Hortaz, honek guztiak gure hirugarren hipotesia onartzera eramaten gaitu, frogatu baitugu liburuzainik ez daukan liburutegiak ez duela behar bezala funtzionatzen. Liburuzaina eskola-liburutegiko arduradun nagusia da, berak antolatzen ditu bertako ekintza guztiak eta bera da liburutegia funtzionaraztea egiten duena. Pertsona hau ez badago, eskola-komunitateko beste kideek euren ordutegia moldatu beharko lukete liburutegiaz arduratzeko, eta horrek zailtasun handiagoak ekartzen dituela ikusi izan dugu, oztopo gaindiezin bihurtzeraino kasu honetan.

- **Ikasleen irakurzaletasuna pizteko eskola-liburutegiak antolatzen dituen ekintzak**

	Z10	Z2A
Ikasleentzat eta euren familientzat zuzenduriko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Solasaldi literarioak ▪ Sorginen astea ▪ Motxila ibiltaria ▪ Gelako bloga ▪ Liburuen mailegua ▪ Liburutegiko lagunen kluba ▪ Idazleen bisitaldiak ▪ Guraso kontalariak 	
Ikasleentzat soilik zuzenduriko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakurketa egunerokoa ▪ Gida tematikoak ▪ Ipuin kontalariak ▪ Antzerki tailerra ▪ Ipuin txapelketa ▪ "Nik gomendatzen dut" 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gelako liburutegi txokoa ▪ JUUL kanpaina ▪ Liburu truk

Taula 4. Ikasleen irakurzaletasuna pizteko eskola-liburutegiak antolatzen dituen ekintzak.

Aipatu beharra dago, Z1Oko ekintza guztiak liburutegian sortzen direla eta bertako arduradunak kudeatzen dituela Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeentzat, aldiz, Z2Ako proiektuak puntualak izaten dira, Lehen Hezkuntzako gela konkretu batzuetan soilik jartzen dira martxan eta irakasleak izaten dira horien arduradunak, ekintzak euren gogoaren menpe geratzen direlarik.

Datu hauek gure laugarren eta bosgarren hipotesiak onartzera eramaten gaituzte. Alde batetik, ikusi ahal izan da zenbat eta jarduera gehiago proposatu liburutegiak, orduan eta ikasle gehiago pasatuko direla bertatik. Azken batean, liburutegiak etengabeko aktibitatea badu, ikasleak erakarriagoak sentituko dira ekintzetan parte hartzeko. Bestetik, ikasleen familien parte hartzea ere liburuzainaren dinamikotasunarekin lotuta egongo da. Liburuzaina aktiboa bada eta familientzat zuzenduriko ekintza asko antolatzen baditu, familia hauek eskolan integratuagoak sentituko dira eta euren parte hartzea bertan handiagoa izango da.

7. ONDORIOAK

Hona hemen ikerketaren ondorio agerizkoenak:

Hasteko, argi geratu da eskola-liburutegi batek funtzionamendu egokia izan dezan zenbait baldintza bete behar dituela, esate baterako, euskarri mota ezberdinen bidezko kalitatezko bilduma anitza eskaintzea, espazioa eta materiala umei egokiturik egotea, ordutegi malgua izatea, hezkuntza curriculumarekin loturik egotea, eta batez ere, eskola-komunitateko kideen parte-hartzea sustatzen duen eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak egiten dituen arduradun bat izatea.

Ez hori bakarrik, ikusi ahal izan da ikastetxearen ereduak, hau da, publikoa ala pribatua izateak, askotan eragin handia daukala bere liburutegiaren kalitatean.

Badirudi, EAEko eskola publikoetako liburutegiek hobeto funtzionatzen dutela pribatu kontzertatu edo ez kontzertatuetako liburutegiek baino. Honen

arrazoi nagusia ondorengoa izan daiteke, eskola publiko batzuk ACEX programa instituzionalaren barruan sarturik egotea. Kasu hauetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak ordutegi osoko eskola-liburutegietarako liburuzain bana aukeratzen du, hau etengabeko formazioan egonik. Honek asko laguntzen du, liburuzainaren ordutegia liburutegira zuzenduta dagoelako erabat eta honek denbora nahikoa izaten duelako ikasle eta euren familientzako ekintzak antolatzeko eta liburutegia egituratzeko. Hori horrela izanik ere, aipatu beharra dago EAEko eskola gehienetan ez dagoela jardunaldi osoko dedikazioa duen liburuzainik, ACEX programaren barruan dauden eskola publikoak 176 besterik ez baitira (Santamaría A., 2010).

Zentro eskolar pribatu edo kontzertatuek, ordea, ez dituzte horrelako laguntzarik jasotzen. Gerta daiteke liburutegia ongi funtzionatzea, baina argi dago arduradunik ez izatearen hutsune honek liburutegiaren egoera konplikatzea eragiten duela, kasu batzuetan hura baliogabetuz.

Gainera, inportantea da aurrekontuaren zati bat liburutegirako erabiltzea. Espainiako Estatistika Ministerioak 2012an argitaratu zuen Eskola-liburutegiei buruzko txostenetik hurrengo datuak jaso ditzakegu: 2009-2010 ikasturtean zentroetako %78,1ek zenbatekoren bat euren liburutegirako materiala erosteko zuzendu du, portzentaje txikiena zentro pribatuena izanik %60,6rekin.

Beraz, liburutegia dagoen ikastegian liburutegiak eta bertako liburuzainak hartuko du irakurketa sustatzearen ardura, aldiz, liburutegia ez daukan zentroan jarduera hauek puntualagoak izango dira eta, ikasgela bakoitzaren irakaslearen irakurketarenganako motibazioaren menpe geratuz. Beraz, azkeneko kasu honetan, aktibitateen arrakasta txikiagoa izaten da bizitasunez beteriko liburutegia duen zentroetakoak baino, inportantea baita eskola-liburutegia eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak era koordinatuan agertzea.

Dena den, ACEX programak EAEko eskola-liburutegian bultzada guztiz onuragarria suposatu duen arren, ikus daiteke ez duela eragin nahikorik izan. 2006. urteko LOEn eskola-liburutegien derrigortasuna adierazten da, baina hau

ez da eskola guztietan betetzen. Gainera, gaur egungo krisia eta murrizketak direla eta, eskoletan alboratzen den lehendabiziko gauza liburutegia izaten da, hau ez ezinbestekotzat hartzen baita egoera honen aurrean.

Hezitzailea ona eta berritzailea izan dadin, testu liburuetatik aldendu beharko litzateke metodologia berriak eta orijinalak bilatuz, behintzat hau da unibertsitatean behin eta berriz transmititzen den ideia. Baina errealitatera hurbiltzerakoan, zer ikusten dugu? Orokorrean ez dira teknika berritzaile askorik erabiltzen, zentroetako komunitateko kideak eroso sentitzen baitira dagoenarekin eta aldaketak egitea esfortzua eskatzen duelako guztien partez. Eskola-liburutegia gehiago aprobetxatu beharko litzateke, bertatik metodo polit eta ezberdinak atera baitaitezke, ikasleen ikasteko motibazioa handituz. Irakurketa helburu gisa, eskola-liburutegia errekurtsio gisa eta biak ikasleen heziketarako instrumentu gisa erabiltzea dira hezkuntza sistema moderno baten giltzarrietako batzuk. “...Allí donde se mantengan los métodos tradicionales de enseñanza las bibliotecas escolares son perfectamente prescindibles; por tanto, la integración de la biblioteca escolar sólo es posible allí donde haya una concepción del currículum alejada del libro de texto y de la clase magistral como recursos básicos” (Gillermo Castán, 1995).

Puntu horretara ailegatu ahal izateko, mesedegarria izango litzateke alde batetik, zentroek instituzioetatik laguntza handiagoak jasotzea eta gizartean eskola-liburutegiaren garrantzia gehiago zabaltzea, jendeak kontzientzia har dezan. Bestetik, ezinbestekoa da eskoletako kideek lankidetzan aritzea eta liburutegi on bat osotzeko konpromisoa hartzea, guztion artean helburua lortu ahal izateko. Gainera, zentro pribatuek batez ere, euren apustua handitu beharko lukete eta euren aurrekontuaren kantitate bat eskola-liburutegirako inbertitu. Kontzientziazioa, adostasuna, ebaluazioa, aukeraketa, formazioa eta jarraitutasuna. Baldintza hauetariko batek huts egingo balu, herren utziko luke eskola-liburutegiaren oinarria.

6. BIBLIOGRAFIA

BARÓ, M. eta MAÑÁ, T. (1996): *Formarse para informarse*. Celeste/MEC, Madrid.

- Berritzegune Nagusia, ACEX (Bibliotecas Escolares) (2013). *Orientaciones en torno a la lectura*. Educación Primaria. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritz.
- CASTÁN, G. (2004): *Diez tesis para el debate sobre las bibliotecas escolares*. Educación y Biblioteca 139 zb., Madrid.
- Eskola liburutegiak, ACEX programa <<http://www.acex.hezkuntza.net/web/guest>> [kontsulta data: maiatzaren 25ean]
- Espainiako Hezkuntza, Kultur eta Kirol Ministerioa eta Estatistikako Idazkaritza Nagusia (2012): *Primera Estadística de Bibliotecas Escolares* <[https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion/no-universitaria/centros/Estad-de-Bibliotecas Escolares.html](https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion/no-universitaria/centros/Estad-de-Bibliotecas_Escolares.html)> [kontsulta: maiatzaren 30ean]
- FERREIRO, E. (2004): *Bibliotecarios y maestros de educación básica en el contexto de la "alfabetización digital"*. IFLA Council and General Conference 70 zb.
- GARCÍA GUERRERO, J. (2012): *Contribución de la biblioteca escolar al fomento de la lectura*. Sevilla. Junta de Andalucía, Consejería de Educación, Dirección General de Evaluación y Ordenación Educativa.
- Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa <<http://www.fundaciongsr.com/>> [kontsulta: apirilaren 30ean]
- GÓMEZ-HERNÁNDEZ, J.A. (2002): *Gestión de Bibliotecas*. Murcia: DM.
- GÓMEZ-HERNÁNDEZ, J.A. (2010): *Las bibliotecas escolares en España ante una nueva década*. Anuario ThinkEPI, v. 4, pp. 94-102.
- IFLA-UNESCO (2000) *The School Library Manifesto: The School Library in Teaching and Learning for all*. IFLA. <www.ifla.org/VII/s11/pubs/manifest.htm> [kontsulta: maiatzaren 10ean]
- Kultura eta Hizkuntza Departamentua (2002): EAEko eskola-liburutegien egoerari buruzko txostena.
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LOE), BOE 106. zb. <http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2006/07899> [kontsulta: maiatzaren 10ean]
- LIZARRALDE, M. eta LORENTE, M. (2003): *Projecte Chilies: un bon exemple per a aprofundir en les relacions biblioteca-escola*. *Biblioteconomía y Documentació aldizkaria vol. 35* <<http://www.cobdc.org/publica/item/item35.html>> [kontsulta: ekainaren 2an]
- LOCKWOOD, M. (2011): *Promover el placer de leer en la Educación Primaria*. Morata, Ministerio de Educación.
- MARTÍN GARZO, G. (2003): *Instrucciones para enseñar a leer a un niño*. Suplemento Blanco y Negro Cultural del diario ABC.
- MESONERO DE MIGUEL, M. (2005): *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- MORENO, V. (2004): *Lectores competentes*. Anaya, Madrid.
- OCDE (2010): PISA 2009 Results: What Students Know and Can Do – Student Performance in Reading, Mathematics and Science (Volume I) <http://dx.doi.org/10.1787/9789264091450-en> [kontsulta: apirilaren 23an]
- OSORO, K. (2010): *Cómo enseñar a los niños a odiar la lectura*. Servicio de Orientación a la Lecturak (SOL) argitaratua.
- SANTAMARÍA, A. (2010): *Programa de actividades extraescolares. Bibliotecas escolares en Euskadi*. Bilbao.